

kultura

sortzen dugu

BILBAO 700 • III MILELIUM

Sormena bultzatzen dugu eta zure eskuetan jartzen ditugu obra
paregabeak, berriak eta klasikoak, behar-beharrezkoak.
Sortzailearen eskuetatik zure eskuetara.
Artea, pentsamendua eta musika guztiontzat. Mundu irekia.
Hau da gure kultura.

www.bbk.es

bbk

Legge gordailua: BI-85-98
ISSN: 1577-9025

MAHATSERRIKO ALDIZKARIA

berria

2001ko ABENDUA
39. zkia. 125 pzt.


*DISPERTSIOREN
BIKTIMAK*

*EUSKERIAREN
GABON KANTAK*

*SALBATZAILEAK
DANTZA TALDEA*

Miren Agur Meabe

**“Euskal literaturan
aniztasuna eta
maila altua dago”**



Begoñabarrako txaletak XIX. mendearen akabuan

Gaur egun Campo Volantin esaten dogun pasealekua Begoñako ibarra izan da mendez mende. Ibaizabal ondoko bazterrok Bilbok beretzat hartu ebezan XIX. mendean, Begoña irunsi baino arinago. Hortxe, ibai ertzean, Bilboko aristokrata eta burges haundiek euren etxe dotoreak altxatu ebezan bigarren karlistadea amaitu ostean. Garai hartan sortutako jauregi eta txalet haietarik bakarrak dirau zutunik, gaur egun Bilboko Autoridad Portuariaren egoitza dana.

Besteak desagertu jakuz, progresoak holan eskatzen ei ebalako.

Erretratuak, beste behin Pedro Telesforo de Errazkinen bilduma zoragarritik hartuta, oligarkiaren hiru etxe erakusten deusku. Ezkerretik lehena Kosme Zubiriak aginduz egin eben haren seme Luis Zubiria Ibarrentzat. Hurrengoa, Gabriel Ibarra Cabiedesena zan eta hirugarrena, gaur egungo Fontetxa y Salazar kale kantoian egongo litzakena, Juan Maria Ibarrenaren aginduz altxatu eben haren seme Jose Antoniorentzat.

Argazkia Euskal Museok paratu eta argitaratutako "Bilbao 1860-1895. Pedro Telesforo de Errazquin" liburutik hartu dogu.




| | | | |
|--|----|---------------------------|----|
| ▶ Iritzia | 4 | ▶ Inkesta | 19 |
| ▶ Dispersioaren biktimak | 5 | ▶ Mahatsberriak | 20 |
| ▶ Begoña eta Euskerea | 8 | ▶ Hezkuntza | 24 |
| ▶ Taldea: Salbatzaileak | 10 | ▶ Mendi Ibilbidea | 26 |
| ▶ Euskeria Abesbatza | 12 | ▶ Durangoko azoka | 28 |
| ▶ Elkarrizketa: Miren Agur Meabe | 15 | ▶ Horoskopoa/Agenda | 30 |

Jantzan ta kantuen gusture ibiltzen direz asko ta asko. Durengora joan ta jantza ta kantue liburun ganien, Anoetakoa ikusi ta hareik danak jantza ta kantue direzela pentsau. Sasoidxe da asko ta asko pentsau deidxen dana ez dala pausuek eta letrak ikestie ta gero jantza ta kantuan eittie. Sarriten kantuen gabiltzezenien zer kantaten dogun bere jakin bier da, ta bardin jantzan gabiltzezenien, orduen bere pasuek norantza eroango gaittuezen jakin bier da. Gabonetan asko kantauko dogu, Hator, hator ta holangoak, ta gaztaña zimelak ta danboliñiegaz barik batzuek gehidxago pentsako daurie baten bateri kantaten dabiltzazela ta gure leukie harek benetan entzutie, albo-albotik, hau de, "hator, hator" entzun ta atoan etortie. Ta seguruenik, kantuen barik, berbetan egin gure leukie hagaz, aurrez aurre.

Ta liburue eskribidu edo bertsoa eitten dabenak bere haxe gure daurie: baten bategaz berba egin ta hareri zeozer esan, ta harek entendidutie ta gustatie, ta horregaittik txalo jottie, ta ez ondo kantaten dauelako. Baie horretarako entzun ta entendidu ein bier da, baitte berba eitten doskunari bere. Entendiu zu?

BEGOÑAKO ASUNTZINO AUZOAREN ETA BESTE TOKI-IZEN BATZUEN ESANGURAREN INGURUAN



Etxe multzoa dogu izen hau daraman Asuntzino auzo hau, eta Artxandaren mazelatan dago, Lorategi-urriaren eta Lezama-ko bide zaharraren artean. Etxe-multzo

honek, bada, Andra Mariaren jaurespenetik hartzen dau izena.


Ategorri txakolindegiko kalea. Santutxuko barrutian ageri jaku kale hau, eta Mandoia kalea eta Iturriaga zehar-kalea batzen ditu. Luis Briñas ikastetxearen ondoan dago. Izan hau toki berean egoan txakolindegi batena dogu, eta baserri haren itxureari ei jagokan izena da bera.

Aurrekoetxea. Begoñako eleizatean dago kale hau. Iturribide eta Prim kaleak batzen ditu kale honek. Gauza bitxi bat jazoten da, beharbada, Bilbon urteetan zehar egin dan urigintza 'berezia'ren erruagaitik; egin-eginean bere, Prim kaleak goiko aldean errebueta bat egiten dau, Mazustegi kalearen kontra, horrela, bada, Aurrekoetxearen tarte horrek batzen ditu Prim kalearen zati bi: bata, goiko aldetik, eta bestea, beheko aldetik. Toki-izenaren eretzean, hauxe esan behar dogu: eraketa gardeneko toki-izena dogu, baina badau beste berezitasun bat: bertan baserri bat egon zan, eta etxe horren ugazaba Martin Aurrekoetxea izan zen, euskal ekandu zaharrari erion legez, hau da, etxeak bertan bizi danari emoten deuto deitorea.

GOTZON LOBERA REVILLA

GIZAKUNDE KOMENTUA

Gizakunde komentua, San Agustin eta San Frantziskoko komentuekin batera, Bilboko arrabaletan zegoen komenturik garrantzitsuena



zen. Hiru horietarik zutunik irauten duen bakarra da. Atxuriko Ibenin zegoen, Begoña eta Bilboren arteko muga-mugan. Alboko horma batean mugarria ikus daiteke oraindik. Dominikarrek toki hori hautatu zuten emakumeentzako komentua altxarazteko. Bere baitan eliza eta klaustroa dago.

Eraikitzeo obrak 1515ean hasi ziren, auzo aberatsak dirua jarri zutenean gero euren hilobiak bertan euki ahal izateko. 1690 arte luzatu ziren lanak, urte hartan bertan amaitu baitzen aurrealdea.

1995 urtean komentuan Eliz Artearen Museoa zabaldu zen bertan, elizbarrutiaren eskutik. Bere baitan erlijioaz lotutako artelan, jantzi eta gauza eder asko dago.

Gizakunde komentua izen bereko plazaren buruan dago. Hiriaren bazter hori txokotxoa da, ia ia bisitariarentzat ikustezin. Nahikoa galduta egon da urteetan eta autoez leporaino beteta. Mereziko luke behar den moduko egokitzapena oinezkoentzako espazio gisa gordetzeko eta elizari behar bezalako tratamendua emateko.

IÑAKI URIARTE

**Bizkaiko Foru
Aldundiko
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak
diruz lagundutako
aldizkaria**

ARGITARATZAILEA:
Batana Batu Kultur
Elkartea

ERREDAKZIOA:
Iturriaga 55, 1. ezk.
Bilbo - 48004
Tfnoa:
94 473 54 48
e-posta:

berton@euskalnet.net

ZUZENDARIA
Hektor Ortega
ERREDAKZIOA:
Arrate Diez,
Joana Etxebarria, Irune
Berro, Iratxe Ruiz,
Erdoitza Martínez
Unai Cuevas

ARGAZKIAK:
Iñigo Azkona eta
Xabier Herrera

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Iñaki Berastegi.
Joseba Barrenetxea

KOLABORATZAILEAK:
Jaione Letamendia, Itxaso
Perez, Alberto Ugarte,
Iñaki Gaminde, Igor M.
de Vidales, Santutxuko
Bertso Eskola, Iñaki
Aurrekoetxea,

Joseba Zelaia,
Benito Fiz


ADMINISTRAZIOA ETA
PUBLIZITATEA:
Koldo Urrutikoetxea.
Zuriñe Martinez

LEGE GORDAILUA:
Bi-85-98

ALE KOPURUA:
1.200

Dispertsioaren biktimak

Dispertsio politikaren helburu nagusia presoak dira, dudu barik. Eurak dira sufrimendurik handiena bere gain hartzen dutenak. Baina bostehun presoekin batera, dispertsioak milaka lagunengatik bizitza aldatu, baldintzatu eta, batzutan, kolokan jartzen du. Familiarrek eta lagunek kondena latza pairatzen dute euskal gizartearen sektore batzuek itsuarena eta gorraena egiten duten bitartean. Jakin dezagun dispertsioak zelan baldintzatzen duen familia mahatsorri biren bizimodua, beste asko ere antzera dabilzala ahaztu barik.



Testoa: Irune Berro Urrizelki / H. O.



**IRUDIA SORTZEN DUGU
BILBO**

Santutxu kalea, 46
Tfnoa: 944 333 935 www.bilbaoweb.com/Spedro
Santutxu kalea, 37 E-Mail: iban.lopez@navegalia.com
Tfnoa: 944 128 714

**HORTZ KLINIKA
GERMÁN BERGARETXE**

GABRIEL RESTI, 30 4. G
TXURDINAGA

☎ 94 412 82 74

O.P.E.: 039/97

CYBER TIME

**Ordenagailua gurea da
ideiak, zureak**

Sarean Jolasak
Internet
Inprimaketa
Eskanerra
Datu grabaketak...

Aita Pernet, 1
48004 Santutxu
Bilbo


tfnoa/faxa: 94 459 74 06
E-mail: cyber-time.euskalnet.net
http://www.cyber-time.euskalnet.net

Sebas Prietok zazpi urte daramatza espetxean, azkeneko bostak Huelvan igaro dituela. Mahatserritik bertara 1.100 km daude. Beraz, Sebasi bisita egiteko orotara 2.200 km egin behar dira. Abentura itzela suposatzen du horrek. Kotxez egitea gogorra denez gero, Senideak elkar-teak -orain Etxerat- astero antolatzen duen autobus zerbitzua erabiltzen du Itzik. Autobus honek Sevillan uzten ditu bera eta Huelvan dauden gainontzeko presoeri bisita egitera doazenak eta bertatik, linea autobus bat hartu behar dute Huelvaraino. Ondoren, presondegiraino eramango dituen taxia.


Bi gau ematen ditu Itzik beraz etxetik kanpo berrogei minutu irauten dituen bisita bat edukitzeko. Hala ere, horrek guztiak pena merezi du Sebas ikustearren. "Barrukoek bidaian galdu duzun indar guztia ematen dizute, energia izugarria baitute" dio Itzik. Autobus, taxi eta jantaria gehituz Huelvarainoko bidaia bakoitzak 20.000 pezeta balio ditu. 20.000 pezeta, 20.000 istripu arrisku eta 20.000 tentsio edozein ezustekok bisitarik gabe utzi baititzake. Autobusen bat berandu iritsiz gero, ordutegia aldatuz gero edo trafikoarekin edozein arazok guztia hankaz gora jarri dezake.

Itziren esanetan dispersioak lorpenen bat egin badu huraxe senide batzuen arteko elkartasun eza izan da. Bidaia arinago eta erosoago egin arren, ez dituzte besteak kontuan hartzen kotxeetan antolatzerako orduan. Hala ere, lagunak eta familiak egoera honetan laguntza emateko funtsezkoak direla aitatzten du Itzik. Hauek eta herriak sortutako ekimenak, 'Mirentxin Gidariak' autobus zerbitzua kasu. Edozeini erraztasunak emateaz gain, autorik ez dutenei edota nagusiei alternatiba bat eskaintzen zaielako. "Nik auto berria dut, baina egin izan dut Huelvarako bidaia kotxe zahar batean eta bide erdian botata geratu. Beste askotan, nire semea txikia zenean, bidaiatu nik bakarrik kotxea jaitsiz Huelvara eta igoz" gaineratzen du Itzik.

Sendiarengan duen baldintzapenei garrantzia kendu barik, ezin ahantz daiteke dispersioak presoarengan ere presio zehatz eta gogorra duela. Bere ingurutik isolatzea bilatzen du PSOEk bere garaian hartutako neurriak, eta modu batean hura lortzen du. Euskal Herriko telebista eta irrati kateak entzun ahal ez izatea guretzat insignifikantea eman ahal duen bitartean beraiantzat funtsa dezenteko auzia bide da. "Behin preso bati Euskadi Irratia hartzen zuen irrati aparailua oparitu zioten eta guztiak irrati modelo hura eskatzen hasi ziren eurak ere irradian hemengo berriak entzun nahi zituztelako eta euskaraz". Gainera, Sebas Basaurira ekarri zutenean Bilbon zinegotzi izan



Kepa Legina



Sebas Prieto

zeneko garaian, "harritura eta pozez esaten zuen ziegatik Sollubeko antena ikusten zuela".

Kepa Legina ere Otxarkoagokoa da, Sebas Prieto bezala. Arbolantxa gaineko baserri bateko semea. Duela hogeita sei urte etxetik alde egin eta geroztik errefuxiatuta bizi izan da. Hasieran errefuxiatu paperak lortu zituen baina gero kendu eta beste errefuxiatu batzuekin 'kofinatuta' egon zen. Gero Mexikon hamabost urte egin zuen. Orain urte bi Pariseko aireportuan, oraindik ere hegazkinean zegoela, polizia frantsesak harrapatu eta kartzelara sartu zuten. Paris ondoko espetxe batean urte bi eman ostean, abenduaren 13an estraditatu eta Madrileko

Soto del Real presondegira eraman zuten.

Errepresioak markatutako ibilaldi luze horretan familia, ahal den neurrian beti euki du ondoan. Baina horrek ahalegin handiak eskatu dizkie. Kepa Leginak azken urte biak Pariseko Fleuryko espetxean eman ditu. Senideak, gehien bat Keparen emaztea, hamabostean behin joan izan dira Pariserara bisitari. Lagunen bisitak debekatuta euki ditu. Familia baino ez. "Barikuan, arratsaldeko seieta Sabin Etxeatik ateratzen da autobusa", azaltzen du Maria Luisak, Keparen arreba. Hamahiru ordu geroago, goizeko 7etan, 1.200 km egin eta gero autobusak Fleuryko espetxe ondoko taberna batean ixten ditu. "Autobusak beste kartzeletara doa eta gero txoferrak lo egitera doa", argitzen du.

Leginatarek 'zortea' daukate. Beste senide batzuek autobusetik jaitsi eta beste metro, autobus edo trena hartu behar dute 'euren' kartzelara ailega arte. "Batzuek Beljika-rikiko mugara joan behar dute, kontu egizu", dio Maria Luisak. Leginatarek kafetxoa hartu tabernan, gauzak bertan utzi -"tabernariak ederto portatzen dira geugaz"- eta bisitara.

"Ordubeteko bisita zan baina orduerdiko bi zitatan banatuta", diosku. Bisitaren pozaren ostean, itzarotea. Arratsaldeko sei eta erdietan -"Iparretik trenez datozenak heldu badira"- autobusak Euskal Herrirantz abiatzen da. Domekako goizeko 7etan atzera ere Sabin Etxeko ateen aurrean egongo dira.

Ordubeteko bisita baterako, beraz, 2.400 kmko bidaia,



26 ordu autobusean sartuta. Eta gainera, dirutza handia gatatatu behar. "Bidaia ordaintzea, egin behar dozuzan gastuak eta presoari sartzen deusazun dirua kontuan hartuta, bidaia bakotzeko 30.000 pezeta behar dozuz", kalkulaten du Maria Luisak. "Eskerrak -dio- Parisekoa nahiko ondo antolatuta dagoen".

Hain baldintza latzetan adineko jendearentzat bidaia sofrikario itzela bihurtzen da. Beste askok ezin dute bisitarik egin. Horixe dugu Keparen amaren kasua. Arbolantxako Garaialde baserrian bizi da eta urte bi hauetan ez du semea ikusterik izan.

"Edonora eramanda ere, ikustera joango gara"

Euskal presoen familiarrak hamaika sufrimendu pasatuta daude. Azkenaldion gauzak gero eta okerrago, gero eta latzago daude. "Dispersioarena oso fuertea da. Presoentzat lehenengo, eta familiarentzat be mortala da", dio Maria Luisa Leginak. Azken bolada honetan gainera, presoak oraindik ere urrutia gero eramaten dituzte. Eta negu latza da. "Baina eurek morala oso altu dekoie eta guk ez dogu galzten esperantzarik", zehazten du.

Trabak traba, urruna urrun eta arazoak arazo, Maria Luisak gauza bat argi utzi nahi du: "Lasai egoteko presoak. Senideok edozein lekutara joango gara guztiok ikustera. Eta hori eurek badakite".

"Gabonak -dio Itzik- bereziki gogorrrak dira familiarekin elkartzen zarelaiko bai bazkaltzeko baita afaltzeko ere eta beti norbait falta delako". Horrez gain, eta Itziren hitzak gogora ekarriz, "zuk behintzat badaukazu ospakizunik egiteko aukera baina berak ez. Kasurik onenean bost minutuko deia du etxeokokin mintzatzeko".

GOJIAN S.C.L.
LAN BERTIKALAK
 Pintura lanak etxaurre eta patioetan
 Ke-irteerak eta Ur-hodiak
 Eraikinetako edozein konponketa
ANDAMIO BARIK
TELEFONOAK:
630 08 09 38
659 45 16 22

Bikoitz
 ARLOPAK ★
 ZILARRA C
 OPARIK ★
 Part. Arsuaga SANTUTXU
 Tel. & Fax: 473 42 88 • 48004 BILBO
 bikoitz@euskalnet.net / www.euskalnet.net/bikoitz

MESÓN
URETXE
 Santutxuko poteo gunean

Pa...Ya JO TA KE OTXARKOAGA EUSKALDUNDU ARTE
OTXARKOAGA
Pa...Yak baditu alternatibak

Ez dira urte asko gure Mahatserriko baserri girotik garbilekuak desagertu zireala eta hemen ahaiztutetik atara gura doguz. Orain dala 50 urte inguru, normala zan arropa bete balde zabala buruan ikustea Begoñako neska edo andreak, garbilekura arropa lohiegaz joaten edo etxerako bidean garbitu eta gero.

Begoña eta Euskerea

Koldo Urrutikoetxea eta

BEGOÑAKO GARBILEKUAK EDO LABADEROAK



Aurrerapenak eragin handia izaten dabe gure bizimodu, eta gaur egun, ikara be emoten dau, bizimodu aldaketeak hartu dauen abiadan pentsatzea, informatika edota genetikari buruzkoak esate baterako. Aldaketeak, gero eta handiagoak dira eta gero eta denpora laburrago-

tan egiten dira, ziztu bizian.

Gaurko orrietara, bizimodu horren barri dakargu. Bizimodu eta beharrian honeek orain dala 50 urte inguruan amaitu zirean. Alde batetik, baserrietara ura eroatea, bestetik, ikuzgailu edo labadora elektrikoak zabalduetea, eta

baita etxe eta auzo barriak altxatea gure Mahatserriko auzoetan, garbilekuen eta honen inguruan egoan ohi-turen eta bizimoduaren akabua ekarri eban. Beharbada etxekoandreak eskertu egingo eben benetan, bizimodu erosoago hau eta arropa garbitu eta holango beharrak betirako atzean itxitea.

GURE MAHATSERRIKO GARBILEKUAK


Garbileku asko egozan. Batzuk handiak ziran, ur ugari eta teilatu edo aterpeagaz eta beste batzuek barriz, apalagoak eta batzutan ur putzua eta garbituteko harria besterik ez eben eukiten. Hona hemen gomutatik atara doguzan batzuek.

Ez eukiezan izen zehatzak eta inguru ezetuten zan izenagaz aitatu doguz.

- Tellerie erreka, Arbolantxako gaurko Etxe Pinto baserri aurrean.
- Larratundu, gaurko bariantaren Otxarkoagako urteera ondoan.
- Ugarte edo Larrakoetxe, gaurko Otxarkoagako "Justo y Pastor" eliza azpian.
- Birjinetxe, gaurko Txurdinagako Eroskiren aurreko aldean.
- Abaro edo Artalandio, gaur egungo Txurdinaga parkean Gabriel Aresti aldean.
- Matalobos, Txurdinagako gaurko Anbulatorio inguruan.
- Troka, gaurko Txurdinagako kiroldegi inguruan.
- Atxeta, Arabellako ur depositoaren ondoan.
- Uribarri, gaurko udaletxeko bulegoen ondoan.

Batzuetan, 6-8 pertsonentzat lekua egoan eta teilatua eta eraikin sendoagaz eginda, Larratundu, Larrakoetxe, Birjinetxe eta Matalobosekoak esate baterako. Honeetan garbitutetik aparte, ganaduek ura edateko "aska" eukien eta baita, iturria be eukien edateko ura hartuteko.

Beste batzuk, txikerragoak ziran eta hemen aipatuten ez diran beste batzuek barriz, ur putzua eta garbituteko harri hutsak zirean, Boluetako Iturrigaldu esate baterako iturria besterik ez zan.



GARBILEKUA, TOPALEKUA ETA OLGETALEKUA

Garbilekutan egiten ziran garbiketa beharrak, gogorra ziran gaurkoagaz konparaten badoguz baie orduko beharrak holangoak ziran, behar fisiko handikoak. Etxetik balde zabal batean arropa lohia pilatu, txinbo xaboi pastilla eta zepilloa hartu, sorkia buru gainean ipini eta balde zabala kargatu ehun, edo bostehun metrotarainoko garbilekuraino.

Han harria edo lekua hartu eta bi edo hiru ordutan ekin eta ekin ur hotzagaz, bai laneko arropeta, etxeko arropeta, izereak ... Gero arropa garbia baina busti-bustia etxera eta etxe ondoan eskegi sikatuteko.


Baina leku honeek ez ziran garbileku izaten bakar-bakarrik, bertan auto-mautu lekua eta barriak zabalduete lekua be izaten zan, eta baita liskarra eta alkar larrua kenduteko lekua.

Baina urak bizitza dakar eta uraren inguruan beste gauza batzuk be egiten ziran, beste garbiketa batzuk edo soloak ureztatzeko, ur baldeak "kantinalua"kaz eroaten. Umeentzako olgetalekua be izaten zan, bai zapaburuak atrapatuko edo nagusieri barrabaskerik egiteko.

Begoña Zarate, Plazakotxe baserrikoak zera kontatzen deusku: Guk, Zuberokoak moduan, erreka desbideratu eta putzu bat genduan eginda eta gari-harri batean garbituten genduan arropa.

SALBATZAILEAK CASTAÑOSEKO DANTZA TALDEA

1978 urtetik hona euskal dantzak gogo biziz
zabaldtu dituzte talde mahatsorriak



Salbatzaileak dugu Begoñabarra edo Castaños inguruko euskal dantza taldea. 1978an sortuta, diru eta babes gutxiaz gauza handiak eginda dago. Dantzak bazter mahatsorri horretan etengabe zabaldtu ditu eta, hori gutxi balitz, urte andana ederra da hileko azken larunbatero Santiago plazan erromeria antolatzen dutela. Euskal kulturarekiko pasioa eta grina ez zaie falta.

Testua eta argazkiak: Ixaso Perez

Elkarrizketa egiteko taldeak Begoñabarra edo Castañoseko Merkatuan duen lokalean geratu gara, leku nahiko hotza neguan dantzatzeko. Baina hor segitzen du gogo haundiz Begoña Arroyo Aldekoa, 23 urte igaro ostean Salbatzaileak dantza taldean gazte eta ez hain gazteei Euskal Herriko dantzak irakasten.

1978an sortu zen dantza talde bezala, baina aurretik urte batzuetako lan txikia bazegoen. Izan ere, Begoñak bere seme-alabei eta lagun batzuei jotak eta arin-arinak irakasten hasi zen inolako helburu zehatz barik, eta 1978ko auzoko jaietan dantzatzeko ote zuten galdetuta, animatu eta taldea finkatu egin zuten.

Baina lehenengo galdera: eta izena, nondik dator? Lehenengo entsaioak Castañoseko Salvador elizako lokaletan egiten zuten, jaietako egitarauan izena ipini behar zutela-eta, Salbatzaileak ("Salvadores" gaztelaraz) ipintzea asmatu zuten bat-batean. Eta geroago aldatzeko asmoa izan badute ere, burokraziak ez die aukerarik eman eta hala deitzen segitu du. Egun entsaiatzen duten lokala Bilboko Udalarena da.



JENDE ASKO IBILI DA
Castaños eta inguru horretako jende asko pasatu da taldeetik eta egun gutxi gora behera 140 pertsonak osatzen dute taldea, dantzariak, txistulariak eta fanfarrekoak barne. Azken hau sortu zutenean saiatu ziren musikariak aldi berean dantzariak ez izaten, inkompatibilitaterik ez egoteko, baina ezinezkoa suertatu zaie. Noiz edo noiz, inauterietako dantzetan-eta, dantza egiteko ez bada, pertsonai gisa aritzeko deitzen dituzte dantzatzeko "gai ez diren nagusi" horiei parte hartzeko eta laguntzeko, eta horrela loturari eusten diote. Beste batzuk fanfarrean segitzen dute.

Egunero daude entsaiatzeko saioak, arratsaldeko 5etatik 9etara, eta aipatzekoa da asteazkeneko hamasei urteetatik gorakoentzat doaneko ikastaroa dagoela oinarritzko dantzak ikasteko, arratsaldeko zazpietatik zortzi eta erdiak arte. Larunbatetan txistulariek eta fanfarrekoek entsaiatzen dute, baita gaitero taldeak ere.

Taldeko gazteenek bost urte daukate eta askotxo dira. Zazpi eta hamahiru urte bitartean mutilek mutilen dantzak ikasten dute, eta neskek, neskeenak. Ondoren, polkak eta apur bat zailagoak direnak ikasten hasten dira. Ikastaroak Begoñak berak ematen ditu, batzuetan bakarrik, besteetan, bere semea Gotzonen eta beste dantzari nagusien laguntzaz.


Taldeak Bilboko auzoetako jaietan parte hartu izan du beti, gehienetan musutruk (auzoko jai batzordeek diru gutxirekin ibiltzen baitira ia beti); Olentzero, Erregeen kabalagan ardiekin eta guzti, Aratusteetan... une eta leku askotan ibiltzen da. Lapurdira ere irtenaldiak egiten dituzte, baina elkartrukaketerik egiten duten galdetuta, ezetz esaten du Begoñak, herri batean egitea hirian baino errazagoa delako, eta gainera diru gastu handia suposatzen zaielako, eta ez daukate horrenbeste.

SANTIAGOKO ERROMERIA
Badaramatzate urte dexente Santiagon erromeria egiten hileko azken larunbatean. Beti dirurik jaso barik egin dute, eta egun batean burutu zitzaizen Bilboko Udalarari sosa batzuk eskatzea, eta sosak eman



bai, baina musika ekipoa ordaintzeko adina, ez gehiagorik. Gogoia, dena. Baina jantziak egin behar, dantzetako tresnak apurtzen dira, lokalean noiz edo noiz konponketak egin behar dira... gastuak badauzkate, beste edozein dantza talde bezalaxe. Horretarako ezkontzetan dantza egiten dute, kobratuz, eta gazteei kuota txiki bat ezartzen zaie. Orain duela gutxi Bizkaiko Foru Aldundiak zerbait eman die, baina gastuak handiagoak izaten segitzen dute. Erresidentzietara ere joaten ohi dira.

Gogoia ez zaie falta eta auzoko jaietan parte hartzen segitzen dute. Bi urte barru (apur bat gutxiago dagoeneko) 25. Urteurrena ospatuko dute eta liburu bat argitaratzeko asmoa azaldu digu Begoñak, baita pasatu diren guztiak berriz dantzatzeko asmoa ere. Pasa direnak eta euren sema-alabak ere, jakina. Zorionak eta horrela segi!



ASAPALA

KULTUR ELKARTEA

Bertoko euskaltzaleon topagunea eta elkarteak egin guran gabilta

Zeuk ere euskararen ardura badaukazu, batu gurera!

Hemen gagoz:
Iturriaga 55, 1. Ezkerra
Tfnoa. : 944735448
E-posta: asapala@eusnet.org

D U G U D N O T E

E R T O N D U G U

Gabonei ahots ederrez

EUSKERIA ABESBATZAK GABON KANTEZ BETETAKO 'ETXERA!' DISKOA ATERA DU

Testua: H. O.



Euskeriakoak Gaztedi dantza taldekoekin batera.

"Etxera!" dugu Euskeria abesbatzak Gabon kantuez bete duen diskoaren izena. Guztira hamar kantu tradizio herrikoietik zein musika kultuaren altxorretik hartuta. Denak, Euskeriak ohi duen bezala, euskaratuta eta, kasu honetan, bertsolariek egindako aurkezpen banarekin lagunduta. "Etxera!" disko berri hori kultur emaitza bat ez ezik presoei elkartzuna adierazteko modu bat ere bada. Horregatik diskoa ez da errepresioaren atzaparretatik libratu.

Euskeriak atera duen disko honetako zortzi kantu gabon kantuak dira. Batzuk herrikoiak -'Olentzero' eta 'Hator, hator'- eta beste batzuk euskal musikagileek egindakoak. Ez dira falta ere atzerritarrek sortutako gabon kantuak. Baina denei euskarazko letra jarri zaie. Azkeneko biak, ostera, ez daukate zerikusirik Gabonekin. Euskeriak aspaldian egindako grabazioak ziren eta, disko honen bidez, argitara atera dira. "Txurdinagako gure tabernan lan egiten zuen mutil

batek grabaketa estudioa montatu du Arratiako Arantzazun", azaltzen du Euskeriako zuzendari Estitxu Arregik. "Estudioa elizaren ondo-ondoan dago eta froga bat egiteko esan zigun ea nahi genuen zeozer grabatu". Abesbatzak baietz erantzun eta grabatzeko zer eta Gabon kantak prestatzea otu zitzaion. "Grabaketa egun bakar batean egin genuen, domeka batez. Herrian oso ondo hartu gintuzten eta Udaltean ere harrera egin ziguten", gogoratzen du musi-



"Abestiak batzuk kanpotarrenak dira eta beste batzuk hemengoak.

badago baina 'Hasi gaiten abesten Euskal Herriari' bezala egokituta daukagu", nabarmentzen du. Letren egokitzapena Xabier Amurizaren arduraren izan da kasu gehienetan. "Benetako letrak apur bat aldatuta daude. Badakizu, gu apur bat borrokalariak gara...", argitzen du Estitxu Arregik irribarretsu. Abesti bakoitza hasi baino lehen bertsolariek abestiaren aurkezpena egiten dute bertsotan. Jardun horretan Oihane Enbeita, Xabier Amuriza eta Igor Elortza bertsolarien laguntza euki dute.

PRESOEN ALDE

Diskoa grabatutakoan Euskeriak Amnistiaren Aldeko Batzordeetara jo zuen presoen aldeko laguntza gisa eskaintzera. Ondorioz, diskoa mila pezetatan jarri da salgai eta hortik aterako den diru guztia euskal errepresaliatu politikoei sostengu emateko bideratuko da. Guztira lehen edizio honek 3.000 kopia kaleratu ditu. Diskoaren azalean ere 'Euskal presoak Euskal Herrira' ikurra ere badago, lanaren nondik norakoa argi gera dadin. Irudia, ostera, Gorbeako gurutzeari

kari mahatsorriak. Eliza eta ondoko estudioaren arteko frogak --"Ade" estudioetako unitate mugikorraren laguntzaz- emaitza polita eman du. "Guk beste grabaketa bat egin genuen orain urte asko eta bi egunez luzatu zen eta ez ginen hain pozik gelditu", argitzen du.

URTEBETE

Arantzazuko grabazioa iaz egin zen eta, denboraz eta larri ibili zirenez, ez zen astirik izan Gabonetarako argitara emateko. "Utziko dugu urtea eta gero ikusiko dugu, pentsatu genuen orduan", dio Estitxu Arregik. Urtea joan eta diskoa kaleratu dute aurtengo gabonetarako. "Abestiak batzuk kanpotarrenak dira eta beste batzuk hemengoak. 'Aleluia' ere

ETXERA!

Euskeria Abesbatza Gabonetan

Bertsolariak: Oihane Enbeita Xabier Amuriza Igor Elorza

E
R
T
O
N
D
U
G
U

E
R
T
O
N
D
U
G
U

da, guztiz edurtuta.

Ez da disko hori Euskeriak presoan alde egin duen gauza bakarra. Aurten ere, aurreko urteetan legez, abenduaren 23an, Gabon gabaren bezperan, eguerdi aldera, Zazpi Kaleetatik eta Santutxutik kantu-kantari ibili ziren. Eurak Gabon kanta abestu bitartean presoan senideek diru eskea egiten dute. "Horrelakoetan jendeak oso erantzun ona ematen du. Urte askotako ohitura da guretzat eta oso esker onekoa, benetan", dio Arregik. Euskeriarekin batera txistulariak eta Olentzero bera ere joan ohi dira.

Euskeria abesbatzan gaur egun berrogei bat lagun dabil kantari. Gehiengehienak Bilbokoak badira ere, Bizkaiko herrietatik datozenak ere ez dira falta. "Algorta edo Usansolotik datoz batzuk", diosku Estitxu Arregik. Horiek danak pozarren gelditu dira diskoa zelan atera den ikusi eta gero. "Oso pozik gaude denok. Gure artean esaten dugu diskoan 'Orfeón Donostiarra' baino askoz be hobeto kantatzen dugula", dio barreka.



Biktimenganako Laguntza Zerbitzua / Servicio de Asistencia a la Víctima

Zeurekin gaude

EUSKO JAURLARITZA / GOBIERNO VASCO

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA / DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, TRABAJO Y SEGURIDAD SOCIAL

Giza Eskubideen eta Justiziarako Lanbidetarako Zuzendaritza / Dirección de Derechos Humanos y Cooperación con la Justicia

DISKO BAHITUAREN ISTORIOA

Gabon kantuok aspaldian grabatu zituen Euskeria abesbatzak eta iaz, denbora faltaz, ez bazuen Gabonetarako atera, aurten bazegoen hori egiterik. Esan bezala, Euskeriak Amnistiaren Aldeko Batzordeetako arduradunekin jarri ziren harremanetan eta grabazioa eskaini zieten. Jakina, errepresioaren aurkako erakundeek biziki eskertu eta baiezta erantzun zuten.


Orduantxe Garzón epailearen operazioa etorri zen. Urriaren azken egunetan, Amnistiaren Aldeko Batzordeetako hainbat arduradun atxilotu, egoitzetara sartu eta materiala batu zuen polizia espainolak. Hartutako gauzen artean, disko konpaktoa izan behar zuen grabaketa. Hartu eta eraman egin zuten.

Harrez gero Euskeriak jardunean hasi ziren ea diskoa egiteko beste kopiarik edo nonbait egongo ote zen. Hasieran ezetzean bazeuden ere, azkenean agertu egin zen. Diskoa inprimatu eta, ozta-ozta izan bazen ere, diskoa Durangoko Azokan egon zen. Eta orain gure artean dago.

e l k a r r i z k e t a

Miren Agur Meabe

“Euskal literaturan aniztasuna eta maila altua dago”



Miren Agur Meabek euskal poesiaren bazterrak harrotu ditu bere 'Azalaren kodea' liburuarekin. Kritikak, irakurleek eta gainerako idazleek harrera beroa egin diote. Espainiako Kritikaren saria ere irabazita dago. Baina Miren Agur Meabek duela hamabost urte argitaratu zuen bere lehen liburua eta, harrez gero, jo eta ke dabil hainbat jenerotan idazten. Gu berbetan egon gara Lekeition jaio eta duela hamazortzi urte Santutxura bizitzera etorri zen idazle honekin.

Testua: Hektor Ortega
Argazkiak: Iñigo Azkona



Izatez lekittarra zara baina urte asko daramazu Santutxun...

Hamazortzi urte. Lehenengo, Magisteritza ikasten egon nintzanean Deustun egon nintzan bizi izaten. Gero ikasketak amaitu ta batera lana urten jatan Kirikiño ikastolan eta orduantxe topau neban hementxe alokairuko pisua. Hor, bost urtez, beste maisu-maistrakin egon nintzan. Gero neure etxea erosi neban hemen eta hamazortzi urte joan dira.

Orduan lekittarra ez ezik mahatsorria ere bazara...

Santutxuarra sentitzen naiz. Egia esateko asteburu guztietan Lekeitiora joateko joera daukagu, han daukagulako betiko bizitza eta gure jatorria. Baina Santutxu estimu handian daukat. Gaztaro-gaztaroa eta heldutasunaren hasiera hementxe doaz, gure semea ere hemen jaio da. Neurri handi batean Santutxukoa sentitzen naiz.

Kirikiño ikastolan zenbat urte egon zinen irakasle?

Bederatzi urtez egon nintzan. Lehenengo OHOn hasi eta gero txikitxuekin amaitu haur-hezkuntzan. Eta bederatzigarren urtean kudeatzaile modura testu argitaletxe batera pasa-

tzeko aukerea etorri jatan. Eta ordutik beste bederatzi urte daroadaz 'Giltza' argitaletxean eskolarako testu liburuekin, haur eta gazte literatura eta material osagarriak egiten.

Ze oroitzapena duzu Kirikiñoko irakasle garaitik?

Ona. Hasieran Torre Gorostizagako egoitzan egon ginan baina garai haretan Txuridinagako eraikin barria inauguratu zan. Nire lehenengo lana zan, Bilbora etorteak anonimotasunerako aukera emoten eustan... bizimodu barri baten hasiera izan zan. Eta pisu ziztrin eta triste batean baina garai onak ziran. Lagun onak egin nebazan.

Noiz hasi zinen idazten?

Ni gogoratzen naizela, txiki-txikitatik, idazten ikasi nebanetik. Zortzi-hamar urtegar, domeka arratsaldetan, lagunakaz kalera joan aurretik nire plazerrik handiena zan etxeko salan idazten egotea. Hasieran ipuinak ziran alegiazko istorio bat benetako pertsonetan oinarrituta. Ha zan niretzako dibertimendurik handiena. Eskolan asko gozatu izan dot, txikitatik, idazlanak egin behar ziranean. Beste batzuentzat igual sufrimendua zan ba niri gustau egiten jatan. Prosa eta poesia

idazten neban. Gaztelaniaz dena, eh! Gero hamalau eta hamabost urte neukala Lekeition 'Sustrai' aldizkari euskalduna sortu zan. Nire ardura hor sormen arloa eta Lekeitioko historia zan. Hor emon neban erdaraz idaztetik euskaraz idazterako saltoa.

Kostata izan zen?

Ez. Eskolak erdaraz hartu genduzan baina domekero umeentzako mezan, esate baterako, euskaraz irakurtzen genduzan irakurgaiak. Bagenduan kontaktu bat euskara idatziagaz. Ez jatan arrotz egin. Gero Labayruren ikastaroan alfabetizatu nintzan eta gero Magisteritza ikasten hasi nintzan...

Holan hasi zinen Labayrugaz harremanetan?

Bai. Hortxe hasi zan. Hor oraindino 17-18 urte neukazan. Eta gero Irakasle-Eskolako irakasle batzuk eta Labayruren ikastarokoak berberak ziran. Eta hor Euskara arlorako egiten nebazan nire idazlanak eta egun batean irakasle batek esan eustan: 'Idazlan hauek argitara emoteko modukoak lirakeke, eta Labayruk aldizkaria atarako dau'. Eta neu emozionatuta. Hortxe hasi nintzan euren aldizkariagaz kolaboratzaile fijo izaten, 'Idatz eta mintz' aldizkarian.

Gero zure lehen liburua agertu zen, 'Uneka gaba'...

Bai. Hemeretzi urtegar edo 'Idatz eta mintz' aldizkariaren lehen literatur sariketa egin zan. Niretzako lotsa zan aurkeztu nintzala esatea. Sekretu moduan edo aurkeztu nintzan eta irabazle atara nintzan. Horrek indar handia emon eustan. Jarraitu neban idazten eta sariketetan aurkezten eta noizean behin sariak jaso eta han eta hemen saritutako hamar-hamabi ipuin argitaratu eustan Labayruk 'Uneka gaba' izenarekin.

Saritutakoak ziran baina sariak ziran etxean ibilteko modukoak. Gaur egun gazte batek sari bat irabazten badau sekulako oihartzuna dauka baina hori orain hogeitau urte... Liburua hogeitau bost urte neukazala atara zan eta bizkaieraz idatzitako ipuinak ziran, asko eta asko intimismoren bidetik... Horixe izan zan nire lehenengo mugarrria. Baina ez eukan gaur egun hogeitau bost urteko idazle baten lanaren transzendentzia, garai haretan ezinezkoa zan, ez egoelako gaurko argitaletxe azpiegitura eta literatur giroa eta zaletasuna eta alfabetatze maila... Kariño handiz egindako liburua zan.

Gero bizkaieraz segitu zenuen baina batuaz ere hasi zara. Zelan izan da salto hori?

Ez dago saltorik. Biak aldi berean izan dira. Kontua da, nork luzatzen deustun eskua argitaratzeko, era batera edo beste-

ra moldatuko dozu. 'Uneka gaba'ko ipuin batzuk batuaz idatzita egozan Zumarragako sariketarako baina gero Labayruren bilduma bizkaieraz zanez, bizkaierara egokitu nebazan. Ez da egon saltorik, elkarbizitza baino.

Ipuinak, itzulpenak, poesia, haur eta gazte literatura eginda zaude. Zer duzu kuttunen?

Danetarako dago garai bat. Hasieran ipuinak idazten nebazan ipuinak egiten jatazalako errezen. Poesia idatzi nahi neban eta ezina. Ez nekian zelan egin. Tere Irastorzaren lehen liburua irakurri, berak hemeretzi urte ebazala idatzita, eta nik miresten neban eta bi mila legoatara nengoela iruditzen jatan. Ezin neban poesia idatzi. Gero, irakurketa asko eginda eta saio asko eginda zure burua trebatzen duzu. Horrela garai bat heltzen da helduago edo umotuago zagozela zerbaitetan sartzeko, nahiz eta egiten dozun hori lehen mailakoa izan ez. Orduan modu naturalean pasatu nintzan poesiara. Aspalditik idazten neban baina publikatuta orain gitxi arte ez. Poesia solteak aldizkarietan han hemen bai, baina ez neban nire burua hain poetatzat ikusten. Eta orain aldiz gehiago ikusten dot poeta modura, narratziogile modura baino. Aldikadak dagoz. 'Azalaren kodea' argitaratu eta gero poesia idazten dodanean iruditzen jat neure burua errepikatzen ari naizela. Orduan distantzia moduko bat behar dodala uste dot, irakurketa piloa egin behar dodala eta trebatzen jarraitu arren oraindik ez nagoela ezer ekartzeko moduan edo. Orduan haur eta gazte literatura idazten nabil eta hor topaten naiz gustura. Generotan saltoka nabil baina ez esatearren denetan zerbait daukadala, ez. Saltoka nabil ikusten dodalako neure burua ezinduta asebetetzen nauen zerbait egiteko.

Zer ekarri dizu 'Azalaren kodea'k. Orain arteko zure lanik biribilena da?

Ez dakit biribilena ete dan baina neuk argia ikusi dot liburu hori argitaratu danean. Betidanik idazten, sari oso apaletan, argitalpen apaletan, oso zirkuito mugatuan, ze bizkaieraren zirkuitoa mugatua da, eta egiten dozunarekiko konplexu handiarekin. Eta nahi eta ezin horretan Susa argitaletxeak baiekoka emon eustanean hori niretzako izan da... metafora bateaz esateko, odol transfusino bat jasotea lez. Asko suposat dau... maila afektiboan eh? Aparte kritika, aparte irakurleen harrera, aparte salmentak... Hori guzti hori itzita, niretzat 'Azalaren kodea' argitaratzea oxigeno botila bat izan da. Arnasa hartu eta esan hemen nago. Eta gero ikusi ba jentek benetan gogo onez hartu dauala. Esan leike maila afektiboan eta maila 'profesionalean' mugarri modukoa izan dala. Mugarrria baina bide luze baten hasiera. Idaztea bide luzea da, etapaka egitekoa.

Segida eman behar zaio gero...

Hori da. Baina ez da erreza. Orain jente gehiago gagoz idazten irakurtzen baino. Hori esaten da azkenaldian. Eta hori be ezin leike esan. Bakotzak bere buruari autoesigentzia mailarik altuena ipini behar deustou eta umotuta ikusten dozunean orduan argitaratu eta ez argitaletxeak eskatzen deustulako 'baldau hau',...

'Azalaren kodea' ren oihartzuna hor dago, Espainiako Kritika saria hartuta dago, ... baina poesia muga da idazlearentzat? 5.000 ale saldu nahi badoduzuz, ez idatzi poesiarik, argi dago. Baina espresabide koherente eta benetako bat topatu nahi badozu, idatzi benetan sentitzen dozun generoan.



impassearen azpian. Zelan ez dira ba horreek izango? Nahi ta nahiez hoiek dira gaur egungo euskal idazle guztien erreferenteak. Eta poeten artean asko daukadaz kutunak: Sarri, Felipe Juaristi, Iñigo Aranbarri, Jose Luis Otamendi, ... bako txak gauza bana eta ikuspegi bana ekarri dau eta neurri batean danetatik edan dot. Gero edaten dozun hori ea zer iragazkitik pasatzen dozun zeuk ataratzten dozuna benetan zeure ahotsa izan daiten. Euskal literaturan pixka bat erresonantzia kaxa bat bihurtu da. Momentu batzutan zeuk idatzi dozuna ez dakizu zeurea dan, zeuk sortua dan ala beste nor baitena eta inkontzienteki errepikatuta. Arduratuta egoten naiz ni. Bertigoa emoten deust. Liburu bat argitara emoten dodanean beti sentitzen dot holako beldurra: beti dago zer bait beste nor baitenaren oso antzeko izan leikena...

Non idazten dozu, Santutxun edo Lekeition?

Bietan. Orain gehiago Lekeition. Garai batean, hasieran, askoz be gehiago Santutxun. Egutero-egutero bostetatik zortzietara ikastolatik atera eta diziplina moduan idazten nuen. Santutxuko etxean hor egin neban gimnasia egiten hasten zarenean legez: hasieran ez dozu ezer egiten eta berehala nekatzen zara baina eginaren eginez hasi nintzen poemak egiten... Orain hobeto Lekeition, hemen ez daukat denborarik eta bakarrik asteburu eta oporretan egin ahal dot. Orain ez naiz egutero idaztekoa ez daukadalako astirik.

Erdal giroak euskal idazlea mugatzen du?

Nik ez dot hori nabaritu. Badakigu zein dan gure errealitatea eta gure herria ez dagoela normaltasunaren barruan. Euskal giroa nahi badozu topatuko dozu.

Zertan zabilta orain literaturgintzan?

'Azalaren kodea' ren ostean 29 emakumeren artean idatzitako 'Gutuziak' publikatu zan. Hiru mila ale saldu ditu eta inork ez dau esan liburu salduenetako bat izan danik. Gero Bilboko 700 urteurrena dala eta ipuin bat egin dot liburu baterako eta orain gazteentzako liburu bat hasita daukat baina etenda. Batzuetan pasatzen da hori, heldu kapitulu batera eta ezin atara hortik. Marapilatu egin jatan argumetua eta... itzi behar dozu denboralditxo batez...

Amaiera ez dago hasieratik pentsatuta ala?

Neuk ez. Ke ba! Gurako neuke. Neu idazle izateko irudimen gutxi daukat. Ezin dot gauza bat hasieratik planifikatu. Material asko euki arte ez. Narrazioak batzutan ez dakit nondik jarraitu eta geroago eusten deustat barrero. Igoal amets batek emoten deust pista, edo kalean ikusitako detalle batek, edo kasualidade batek...

Zelan ikusten dozu euskal literatura gaur egun?
Zorionez, badago aniztasuna eta badago maila, altua gainera. Genero gehienetan jende asko dabil eta ederto egiten dau. Baina genero bi apur bat galduxeago dabilta, poesia eta, zer esanik ez, antzerkia. Eta gero neure ustetan, gehiago begiratu behar dogu geure aurrekoek egindakoa. Badakit gatxa dala dana ezagutzea baina nora goazen jakiteko nondik gatozen jakin behar da.

Zeintzuk izan dira zure erreferentzia nagusiak idaztean?

Ipuinak idazten hasi nintzanean maiteminduta nengoan Margarite Yourcenarrek, Alejo Carpentier, Juan Rulfo, Miguel Angel Asturias eta, oro har, Hegoamerikako idazleekin. Gero pertsonak aldatzen goaz eta gero beste idazle edo zaletasun batzuk agertzen jatzuz. Eta konturatzen naiz narradoreak bakarrik esan dodazala, ez deustudala poetarik aiatu, ...

Eta euskaraz?
Denok bizi izan gara Atxaga, Sarrionandia eta Lertxundiren

GALDERA LABURRAK

Abesti bat: Yesterday.
Idazle bat: Polibalente eta eternala dalako, Margarite Yourcenar.
Film bat: : Memorias de Africa.
Janari bat: Langostinoak.
Liburu bat: Bat esatearren 'Izuen gordeleketan barrena',

Sarrionandiarena, gure poesia modernoaren sorkinetako bat dalako.
Toki bat: Vieux Boucau, Landetan.
Mendia ala hondartza: Hondartza bakartia udazkenean.
Izen Bat: Joanes

Zer eskatzen diozu urte berriari?

ITXARO (BEGOÑA)

Aurten bezala jarraitzea eta, ahal bada, hobetzea.

GOTZONE (TXURDINAGA)

Ilusioa gure herriarentzat. Ilusio apur bat baino ez dut eskatzen. Horrekin nahikoa da.

IRAIDE (TXURDINAGA)

Osasuna batez ere. Beste ezer baino gehiago.

BEGONA (TXURDINAGA)

Urte barri honetarako eskatzen dot bakea eta alaitasuna guztiontzat.

JUAN (TXURDINAGA)

Osasuna eta lana. Gauza biak. Eta guztiok ondo egon gaitzan.

JOSEAN (SANTUTXU)

Bakea eta askatasuna. Gauza horiek. Baina ez bakarrik datorren urte berrirako, betirako baizik.

EKAITZ (TXURDINAGA)

A!

MAITANE (SANTUTXU)

Hotz gutxiago. Ez dakit ba, zoriona. Eta arazoak konpondu daitezela.

Bilbobuseko zerbitzuak aldatuko ditu Udalak

Bidaia laburragoak egingo dituzte baina horretarako autobus bi hartu beharko dira

Bilboko Udalak Bilbobuseko zerbitzuak zeharo aldatuko ditu 2002 urtean. Helburu nagusia izango da autobusak garaiz eta toki gehiagotara iristea. Xede horrekin bidaia laburtu egingo dira eta bidaideak autobus bi hartu beharko ditu toki urrunetara joateko.

Bilboko Udalak, enpresa baten azterketaren emaitzei kasu eginez, Bilbobuseko lerroak zeharo aldatuko ditu. Ideia nagusia bidaia luzeak saihestea da. Horren ondorioz, orain arte autobus bakar batean egindako bidaia batzuek bi autobus eskatuko dute hemendik aurrera. Autobus aldaketa gehienak plaza biribilean eta plaza eliptikoan egingo dira.

Mahatsorrioi dagokigunez, autobus lerro batzuk behin betiko desagertuko dira. Horixe da, esate baterako, 13arena kasua, San Ignazio-Txurdinaga. Lerro horren ordez 38 eta 48 autobusak indartuko dituzte eta plaza eliptikoan bidaiaiek 10a hartu ahalko dute San Ignazioren joateko.

Santutxu eta Campuzano plazaren arteko autobusa ere, 46a alegia, desagertuko da. Haren ordez, aurreko kasuan bezalaxe, 48a indartuko dute.

Beste kasu batzutan autobusen ibilerak laburragoak egingo dituzte. Horixe dugu 72aren kasua, Errekaldeko kiroldegiaren eta Begoñabarraren (Castaños) arteko autobusa. Aldaketak egingo direnean Errekaldetik Plaza Biribilera baino ez da joango. Begoñabarrako auzoak, beraz, beste autobus baten premian geldituko dira. Horretarako 26a, Uribarri-Erakustazoka, Castañosetik pasatuko da. Gainera, sarritasuna ere hobetuko du, 14 minuturokoa zena 10 minuturokoa izango da eta.

Bardin antzean Zurbaranbarrin. 27ak, Zurbaranbarri-Betolatz, Betolatz eta plaza eliptikoaren arteko bidea baino ez du egingo. Haren ordez, 22, 48 eta 30 zenbakidun autobusek egingo dute zerbitzua eta gero plaza eliptikoan 27a hartu ahalko da Errekaldera joateko.



Badira ere ibilbidea aldatuko duten autobusak. Esate baterako, 40a, Santutxutik Plaza Biribila arteko zatia egin duena, Zabalbidetik igoko da. Jaitsi, Sagarminaga eta Mirafloresetik jaitsiko da. 03a, Plaza Biribila-Otxarkoaga, Zabalbururaino zabalduko da. Otxarkoagako etxe berriak ere atendituko ditu.

Bihotz Sakratua-Zurbaranbarri autobusak (62) ere bidea bestela egingo du, Gran Vía barrera, 20 minuturo pasatu beharrean 15ero pasatzeko. Eta 50a, Buia eta Arriagaren arteko lerroa, Txurdinagako kiroldegitik pasatuko da.

Azkenik, beste lerro batzuetan igarri behar den aldaketa bakarra sarritasunarena da. Maizago agertuko dira euren geltokietan. Horixe dugu 38aren kasua, Otxarkoaga eta Ospitalearen arteko autobusa 14 minuturo izan ordez 10 minuturo izango da. Eta 48a, Santutxu eta Ospitalearen artekoa, 9 minuturo izan beharrean, 8 minuturo pasatuko da.

Bestalde, ikerketa egin duen enpresak lerro berri bat proposatu du Asuntsino auzoaren eta Begoñaren artekoa. Ordubetean behin pasatuko litzateke.

Lerro aldeketak ez ezik, geltokietan GPS sistema jarriko da itxaroten dagoenak jakin dezan zehatz-mehatz komeni zaion autobusa nondik dabilen.

Artxandan golf zelaia egiteko lehen pausoa egin du Foru Aldundiak

Enpresa pribatu bati 54 hektarea lur emango dio Ganguren Orozko, Zornotza eta Lemoako beste eremu batzuen truke

Bizkaiko Foru Aldundiak Artxandan golf zelai pribatua egiteko lehen urratsa egin du egunokaz. Josu Bergararen gobernuak 54 hektarea lur emango dio enpresa bati Ganguren mendilerroaren hegoaldean bertan hamazortzi zulodun zelaia atondu dezan. Trukean, enpresa horrek 210 hektareako sailak emango dizkio Aldundiari. Lur eremuok Orozkon, Lemoan eta Zornotzan daude.

Azken urtebetean gure artean ahotsak entzun dira Artxandan golf zelai pribatua egiteko proiektua zegoela esanez. Uribarriko 'Gure Etxea' auzo elkarteak, esate baterako, aspaldian esan zuen bat ez ezik, hiru zirela bilbotarren muino ederrean golf zelaia egokitzeko egitamuak. Horietatik bat, ostera, bultzada handia hartu du egunokaz. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak golf zelaia egin nahi duen enpresa bati 538.519 metro karratuko eremua ematea erabaki berri du.

Gaur egun lur esparru horretan abeletxea dago. Ganguren mendiaren inguruko bazterrak dira, Santa Marina-Vivero aldean. Lur sail horretan hamazortzi zulodun zelaia atondu nahi du 'Golf Artxanda' enpresak.

Operazioa biribiltzeko, trukean, enpresa horrek 210 hektarea lur emango dizkio Foru Aldundiari. Gehien-gehiena pinudiak dira eta Lemoa, Zornotza eta Orozkon daude. Hala ere, Larrabetzu eta Galdakaoko Udalek euren hirigintza arauak aldatu beharko dituzte zelaia egingo bada. Gaur egun bazter horiek nekazaritzarako lur gisa sailkatuta daude eta golf zelaia hirugarren sektoreko bihurtzea eskatzen du.

EREMU PUBLIKOAK ESKU PRIBATUETARA

Operazioaren nondik norakoak Batzar Nagusietako Bata-suneko taldeak jakinarazi ditu. Batzarkideon iritziz, bide horretatik hiritarren astialdirako izan daitezkeen eremu publiko estrategikoak galtzen dira. Gainera, bertan dagoen abeletxearen bideragarritasun ekonomikoa ere kolokan gelditu daiteke operazioaren ostean. "Nekazaritza ez dute aintzakotzat hartzen", salatu dute.



Batasunaren kritikak trukeerako erabilitako irizpi-deak ere kontuan hartzen ditu. "Trukeerako oso balio gutxi eman zaio lur eremu horri, 280 pezeta metro karratuko, errealtatetik guztiz kanpo", azaldu dute. Azkenik, batzarkide abertzaleek Foru Aldundia presaka ibili izana salatu du. "Batzar Nagusietan gai honen inguruan proposamenak aurkeztu genituen eta hara non lau egun beranduago Aldundiak, ezelango txosten edo azterketa barik, trukea onartzea erabaki du".

Iazko abenduan Uribarriko 'Gure Etxea' auzo elkarteak gogor astindu zituen Artxandan golf zelaia egiteko hiru proiektuak. Bi bederatziz zulodun zelaia ziren eta hirugarrena, Foru Aldundiaren babes jaso duena, hamazortzikoa. Uribarriko auzoen iritziz, golf zelaiek eremu zabalak eskatzen dituzte oso kirol elitista -Bizkaian 6.000 lagunek jokatzen dute- baten mesedetan. Bertako bazkide izateko dirutza handiak behar izaten dira eta, ondorioz, auzoek "mendia pribatizatze" modu bat dela uste dute.

Horrelakoak bazterrean utzi eta horien ordez Artxanda herritarrentzat egokitzea eskatzen du Uribarriko 'Gure Etxea' auzo elkarteak: ibilbide egokiak, lorategi botanikoa, kirol instalazioak guztientzat zabalik, patinatze pista zaharberritzea eta funikularraren erabilpena bultzatzea.

Hemen zure
publizitatea

94 473 54 48

**PRESOAK KALERA
AMNISTIA OSOA!**

SAAK

ADI
ASESORIA
FISCAL - CONTABLE - LABORAL
JURIDICO - MERCANTIL

Oleta, s/n - 48970 BASAURI
Tel. 94 426 08 08
Txomin Garat, 4 - 48004 BILBAO
Tel. 94 411 08 55
adiasesor@adi.euskalnet.net

**Zergak-lan harremanak
kontabilitatea juridikoa
merkatalgintza**

Otxakoagako errepidea egiteko planoak faltsutu zutenen kontra jo du AFOk


Famili elkarteak udal eta foru tekniko eta politikarien aurkako neurriak har ditzala esan dio epaileari

Otxarkoagako auzo elkarteak (AFO) Bizkaiko Foru Aldundi-ko eta Bilboko Udaleko tekniko eta politikari batzuen kontra neurriak har ditzan eskatuko dio epaileari. Erabaki hori hartu dute Otxarkoagako errepide berria egiteko plano ofizialak faltsututa zeudela agerian gelditu eta gero. Horren haritik, beraz, familia elkarteak tekniko eta politikarien erantzukizunak garbitu behar direla uste du.

AFOko abokatu Jose Angel Esnaolaren esan zuenez, familia elkarteak jarritako salaketaren ondorioz EAEko Auzitegi Gorenak kasua ezagutu du eta argi eta garbi gelditu da 1995ko lehen sei hilabeteetan Bilboko Plan Orokorra -hiringintza arau nagusia- ustekabea aldatuta izan zela. Azpiko horri esker hasieran bazterreko errepidea izan behar zuenak -norabide bakoitzeko karril bana- gaur egungo autobia -Otxarkoagako saihebidetara- bilakatu zen.

'Aldaketa' horren ondorioz parke eta lorategietarako gorteko 30.000 metro karratu lur, espezie babestutako zuhaitzez landatu beste 20.000 metro karratu gehiago eta kirol-degirako 6.000 metroko zabalera galdu zituen Otxarkoagak. Haien ordez, gaur egungo autobia. Horretarako, besteak beste, inguru-eraginaren azterketak sekulan tramitatu ez den proiektu bat eduki zuen oinarri.

Otxarkoagako errepide berriak auzo mahatsorri hori inguratzen du Oruetatik (La Herraduratik) Ibarsusiraino. Izan Ekialdeko Saihebidetaren zati bat baino ez da, Orueta eta San Adrian lotu behar duena. Orain arte zati bi egin dira: San Adrian-Larreagaburu (Miraflores) eta Orueta-Ibarsusi. Beraz, hirugarrena falta da, erdikoa alegia, Ibarsusi eta Mira-




floreseko gaina lortu behar duena.

NOREN KONTRA

Otxarkoagako familia elkartearen eskariak honako pertsona hauen erantzukizunak garbitu nahi ditu: Bilboko Udaleko 'Planeamendua' arloko Covadonga Ladron de Gebara eta garai hartan Plan Orokorren bulegoko arduradun nagusi Ibon Areso eta Mikel Ozio. Bizkaiko Foru Aldundiari dago-kionez, Errepideetako zuzendari nagusi Carlos Estefanía eta Ingurugiro saileko foru diputatu María Esther Solabarrieta.

AFOren arkitekto Xabier Martinek esan zuenez, "oraingo interes politiko hutsek, administrazioan dituzten konfiantzazko lagunen bidez, araudia saihesterik ez dutela probatzeko aukera da".



Begoñako auzo-etxearen ondoan espaloiak zabaltzen. Bilboko Udalak Circo Amateur Club Deportivo kaleko espaloiak atontzen hasi da. Lanok Begoñako auzo-etxearen parean egiten ari dira. Helburua da orain estu-estuak diren espaloiak zabaldu eta paseorako aukera ona ematea.

Lanbroa

ARTESANIA LOIDI

Santo Rosario, 1 (Santutxu)
Tlf.: 94 473 10 65

ANGEL

HARATEGIA - URDAITEGIA

Txakoli Ategorri, 6. Tfnoa: 412 48 59

ITZULINKA?

MAHAI JOKOA



Bizkaiaren ganeko 2.000 itaun-erantzun

GAZTETXO eta HELDUENTZAT



Zer dakizu Bizkaiaz?

- Zeri esaten jake "ogigaztaia"?
 - Nor zan Martina Ibaibarriaga?
 - Zein da euskera hobea, Markina ala Zornotzakoa?
- 2.000 itaun, geure herrialdea olgetan ezagutzeko.

Rellenar este impreso y enviar a la siguiente dirección:
Eskari-orki hau bete eta bidali ondoko helbidera:
BIZKAIKO aek • Perro kalea, 1-5.a • 48005 BILBO

DNI / CIF
ENA / IFK

Persona y teléfono de contacto
Harremanetarako, izena eta telefonoa

Dirección
Helbidea

Código postal
Posta kodea Provincia
Probintzia

Forma de pago
Ordaintzeko era **Banku bidez** (20 zenbaki)

Entidad bancaria
Bankuaren izena

Eskaerea egiteko orria

*Informazioa aek-ren fixategian gordetako da, babespekoa da eta interesatuak eskatu, aldatu edo ezabatu leike gura izan ezker. Beronen kontrola nahiz erabilera, Norberaren Datuak Babesteko Lege Organikoaren mende dagoz.
*Esta información se guardará en nuestro fichero, es confidencial y el interesado es libre de modificarlo o cancelarlo. Su control y tratamientos están sujetos a la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal.

BIZKAIKO aek Salneurria: 5.000 pta./ 1.000 ogerleko/ 30,05 € (B.E.Z. barne)

Eskatu egizu zeure herriko aek-ren euskaltegian, edota:
• 94 415 52 57 edo 94 415 95 12 telefonoetan • Posta-e: idoia@aecknet.net • 94 416 65 55 faxa •

'AUZOA PIXKA BAT EUSKALDUNDU DAITEN', KIRIKIÑO IKASTOLAN BERTSO SAIOA

Urtero moduan, Gabonak heldu aurretik Kirikiño ikastolak bertso saioa antolatu zuen abenduaren bostean

Testua: Iratxe Ruiz

Ehun bat pertsona batu zen Kirikiñok abenduaren 5ean antolatu bertso-saioan. Aurten, Ikastola berria egin da eta bertara gonbidatu zituzten berriak, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano eta Xabier Amuriza izan ziren. Baina duda barik ikasle, irakasle eta bertaratu ziren gurasoen arreta bereganatu zuena Oihana Bartra Kirikiño ikastolako ikasle eta bertsolari gaztea izan zen.

Sebas irakasle eta bertso zale amorratuak jarri zituen gaiak eta bertso saioari hasiera eman zion:

"Arratsaldeon eta ondo etorri bertso saio honetara etorri zaren guztioi. Beste urte bat badoakigu, gabon usaina sentitzen hasiak gara eta berau amaitu orduko aurten be guk ezin hutsik egin urtero-urtero hemen egiten dugun bertsoen zitari. Aurtengo honek be lagundu dagiala Kirikiño ikastolako neska-mutilak etorri zarenok eta etorri ez direnak, Txurdinaga auzoa apurtxo bat euskaldunago izan daiten. Horretarako, hemen ditugu lau bertsolari haundi. Aurkezleak norbait aurkezten dauenean, gauzak politak esan gure izaten ditu baina nik gaur zer esan daiket bertsolari hauei buruz esan ez danik?"

Agur moduan bota zituzten lehen bertsoetan, Oihana urduri eta kezkatuta azaldu zen, aldamenean zituen eskarmentu handiko bertsolariekin arituko baitzen. Dena den, bertsoen munduan hasiberria besterik ez bada ere, argi geratu zen, etorkizunean bertsolari bikaina izateko ahalmena eta baloreak jada badiuela.

*Saio honetarako deia jasota
nik erantzun nuen bale
oin kakalarri banaizen ere
jada ezin egin alde
nahiko arraro senti naiteke
aitortzen dut bertsozale
maisuk hemen ta maisuk han
ta ni guztien ikasle.*

Bertso-saioetan ohi denez, bertsolariek rol asko bete behar izan zituzten. Horien artean honako hauek aipatu behar: Amuriza ikastolako zuzendariaren papera egin zuen Egaña berriz, ikusketa egitera gerturatu zen inspektorearena. Egañak, ikasleek egi-

ten zuten zarata dela eta salaketak egin zituzten auzokideen izenean gerturatu zen ikastolara. Amurizak, Begoñako eleizaren kanpai hotsaz inor kexatzen ez dela erantzun zion. Bestetik, Peñagarikano medikuarena egin zuen. Oihanak, kilo batzuk galtzeko dieta hasi eta hilabete pasa ondoren bost loditu zen.

Egaña txapeldunari hiru bat galdera egin zizkioten ostean. Erantzunak bertsoetan bota zituen. Aurreneko galdera honakoa izan zen: Lehenengo txapelaren bila zinenean zer zeneukan orain ez daukazuna? Eta gaur zer daukazu lehen ez zeneukana? Bere erantzuna honakoa izan zen:

*Gauza mordoia edukiko det
batzuk esanda akabo
orain daukadan lasaitasunik
ez nun izango lehenago
orain daukadan azalik ere
orduan ez nun izango
semea ere orain badaukat
faltan zitzaidan lehenago
ta asko ez baina libretan ere
pixka bat diru gehiago.*

Amurizak bere kezka honako bertsoan azaldu zituen:

*Baditut kezka galantak
izerditurik zapatak
ta ez dira neure faltak
lehen Fidel Castro edo San Pedro
esaten eustan hamaikak
orain osteria esaten deuste
'Bin Ladenen antza daukak!'*

Bertso honek hainbat erantzun sortu zituen. Esate baterako, Peñak hainbeste imajina desberdin izanda Spielbergen filme baterako aproposa zela esan zion. Berehala erantzun zion Amurizak, 'Parque Jurásico' pelikularako bi tximinoak behintzat alboan bazituela. Zenbait bertsoen ondoren Athleticen etorkizunari buruz mintzatzen hasi ziren. Amuriza eta Peñagarikano, nahiko itxaropentsu azaldu ziren, aurten Uefa postutan sartuko dela eta, Egañak aldiz, hori gertatu

baino errazago biak tximino izatea zela gaineratu zuen. Amurizak orduan Txurdinagan zegoela gogoratu zion, eta horrek txuri-urdinak zirenik esan nahi ez zuela argitu zion. Peñagarikanok minduta, Yeste eta Tiko ondo dabiltzala erantzun zion eta Realak berriz lehen mailari eutsiko ez diola ziurtatu zuen. Egañaren ustetan, Realan atzerritarrak jokatzeko zuzenkeria ez zela onuragarria erakusten du.

Oihanaren txanda izan zen orduan. Bertso txapelketaren finalera doala etxean esan baina han ez da agertzen. Oihana lagunekin kontzertu batera joan dela aitortzen du orduan.

Eta horrelaxe segitu zuen bertso-saioa, Peña eta Amuriza aktore pornoak izateko ahaleginean, Sharon Stonegaz elkartuko ote ziren ametsen eta Egaña eta Bartra hotza eta beroa zirela, ... Txerria hiltzen den sasoia eta ezkontzen den urtea onenak diren ala ez galdetu zioten ondoren ezkondu berria den Peñari. Berak, oso trankil bizi dela aitortu zuen. Ekainean ezkondu zela baina "oraindik txerririk ez dut hil", erantzun zuen. Txerria hiltzean hainbat txorizo jango dituela gaineratu zuen eta hauek dastatzean zein den hobe ezkontza ala txerria hiltzea jakingo duela adierazi zuen. Duen helburu bakarra zoriontsu izatea dela esanez amaitu zuen.

Ume mahatsorriak Olentzerogaz.

Gure ikastoletako umeak Olentzerori kantu-kantari ibili ziren Abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean. Argazkietan Kirikiño ikastolako ume txikie-



nak daude. Baserritarrez jantzita, Olentzero hartu eta Txurdinagako plaza batzuetan ederto abestu zuten. Hotza handia bazen ere -zero grado- umeak pozaren pozaz eta aita-amak...

hartu bertson etxean!!!

Bete txarteltxo hau eta bidali hona: Bertson aldizkaria. Iturriaga 55, 1. ezkerrean, 48004 Bilbo
Urtebeteko harpidetza izango duzu: 11 zenbaki, 1000 pezetatan.

Izena:
 Abizenak:
 Kalea:Zenbakia: Solairua:
 Herria:Herrialdea: Posta Kodea:
 Telefonoa:
 Bankua:
 Kontu zenbakia (20 digito): ____ / ____ / ____ / ____

Sinadura

KIROLDEGIETAKO ABONOAK EGIN EDOTA BERRITZEKO AUKERA

Bilboko Kiroldegien kudeaketa daraman Bilbao Kirolak enpresak, martxan jarri du abonoak egiteko edota berritzeko kanpaina. Abonoak, familiarrak edota banakakoak izan daitezke eta lehenengoan artean hiru modutakoak egin daitezke. Honela, andre-gizonak eta lau urtetik beherako seme-alabak dituztenak 133,60 euro (18.000 pezeta) ordaindu beharko dituzte; hamasei urte bitarteko semeek dituztenek, aldiz, 8,05 euro gehiago bakoitzeko; eta 16 eta 21 urte bitarteko seme-alabak (ikasleak) dituztenek 18,05 euro ordaindu beharko dituzte. Banakakoa nahiago dutenek, berriz, urtero 89,55 euro kostatuko zaie.

Abonoen jabe direnek, abantaila batzuk izango dituzte: kiroldegietara doan sartuko dira, instalazioak prezio berezietan erreserbatu ahal izango dituzte, eta erreserbak zazpi egun eta orduerdi lehenago egiteko eskubidea izango dute, besteak beste. Gainera, erreserbak eta ikastaroak erabili gura nahi ez dutenei abonoaren prezio orokorrean %10eko deskontua aplikatuko zaie, arratsaldeko 14.00ak baino geroago erabiliko ez dutenei abonoaren prezio orokorraren %35eko deskontua aplikatuko zaie. Deskontu aukera hauek Bilbon erroldatuta daudenei baino ez zaizkie aplikatuko. Bilbon



erroldatuta ez daudenei %30 igoko zaie prezioa.

HAINBAT AUKERA

Urte honetako kirol ikastaroen zerrenda handitu egin da eta honakoak egiteko aukera izango dute izena ematen dutenek: Aerobica, Heziketa berezia, gimnasia artistikoa, mantenimenduko gimnasia, gimnasia mekanizatu, gimnasia erritmikoa, igeriketa, irristaketa, tenisa, yoga, baleta, kardio-funka,

gimnasia berezia, karatea, muskulazioa, esgrima, aretoko dantzak, taekwondo, gimnasia adinekoentzat, Tai-Txia eta billarra.

Hauetaz gain, jarduera osagarriak ere antolatu dira beste enpresa batzuekin akordio batera iritsi ostean. Honela, Bilbao Kirolakeko abonatuak deskontu bereziak izango dituzte hipikan (Hipika Laukiniz- 94-6151380), abenturan (Troka-Abentura- 94-4320445) eta urpekaritzan (Txof deportes-94-4277759).

Bestalde, aipatu, Bilbobusaren dohaineko txartela dutenek, aurreko urteetan bezala, prezio merkeagoak izango dituztela.

Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu Begoña-Txurdinagako udal kiroldegira (94-4117799).

MIKEL ALVAREZ SARITUA

Everestera igo den lehendabiziko bizkaitarra den Mikel Alvarezek, pasa den hileko 28an, urteto legez, Bizkaiko Kirol Elkarteak ematen dituen sarietako bat bereganatu zuen. Euskalduna jauregian egin zen sari banaketan, oso pozik azaldu zen otxarkoagako mendizalea. Kirolari mahatsorriaz gain, Joane Somarriba txirrindulariak eta Quevedo piraguistak ere sariak jaso zituzten.

BERRI TXARRAK R.I.P. SU TA GAR BANDA BASSOTTI TONINO CAROTONE SOZIEDAD ALKOHOLIKA

JAIALDIA URTARRILAK 12 LARUNBATA (Bilboko erakustazoko) **FERIA DE MUESTRAS** Arriateko Zetean Jauregi baxiarekin: Antzerkia, Dazkeroak txalapartariak, bideoak, stand, kale animazioa...
Eta gero... ROCK KONZERTUA

Venta anticipada: 1900pts. (9€)
Taquilla: 2000pts. (10€)

KARTZAT (KORPORAZIO KIROLARIA)

Garraioak



Deitu:
Jabi: 607 43 17 91
Txema: 607 19 68 33



Sugea taberna

Iturriaga, 92 Santutxu

BASTERTXU



TABERNA

Ricardo Bastida plaza

ORISOL (1.127 M) Urkiolatik Olaetara zeharkada

Zeharkada hau egiteko bi autotan joan ginen, bata Urkiolan utzi genuen eta bestea Olaetan, Otxandiotik Aramaiorako bidean hiru kilometrotara dagoen auzoan alegia.


Urkiolako santutegi gainean dagoen azken aparkalekutik (A) irteten den bidexkatik zuzen igo ginen Urkiolamendi tontorrera (1.009 m). Pista antzeko bidezidorretik jaitziaz Asuntza landara heldu ginen. Bertan dagoen Pol-pol iturri ospetsu eta ederraren ondotik (B) pasatuta, ezker aldetik doan harrizko pista hartu genuen Pagaldi lepora heldu arte. Behin lepoa pasatuta eskuinaldetik doan pista zabalean (C) sartu ginen.

Apur bat aurrerago, bidegurutze batean, zurezko geziak aurkitu genituen. Hauek ederto markatzen dute gurea ez ezik Anbo-

Tontor ondoan haitz batean Izpizte, Anboto eta Gurutzeta norabi-deak idatzita daude.

Gailurreriatik Gurutzeta bidea hartuz hamabost minutu geroago Santi-Gurutz ermita topatu genuen (E). Bertatik aurrera eta apur bat beherago ikur zuri gorriak jarraituz Gurutzeta mendatera iritsi ginen. Baina kontuz! Guk ermita pasa eta hirurogei metro harantzago beherantz eta eskumalderantz jo genuen pagadian zehar ikur zaharrez markatutako bidexka bat aurkitu arte. Honek etxola batera (F) eraman gintuen. Hemendik aurrera eta beti beherantz eta ikurrak galdu barik, pista batzuk zeharkatu genituen.

Azkenean bidexka hori pista batean amaitzen da. Pista horretatik apur bat ezkerretarantz jarraituz eskuinetara doan beste pis-



to eta Olaetarako bidea. Gurean aurrera eginez laster Zabalandi ingurura heldu ginen. Bertan hiru aterpe eta iturria dago. Zabalandi lepotik eskuinera jo genuen, baina ez goialdetik, hortik Izpizte mendi gailurrera joaten da eta. Gu ehun metro beherago doan pista zabaletik joan ginen ikur zurigorriak jarraituz bai orain eta bai bide osoan. Bidebanatzea ikustean ezkerrekoa hartu genuen. Apur bat geroago bidexka bihurtu zitzaigun. Hemendik aurrera bidezidor hori harri artean hasi zen eta noiz behinka arrikutsu ere egin zitzaigun, harriz harri joan behar zelako. Bidexka amaituta Leziaga lepora heldu ginen. Hemendik ezkerretara doan bidea Aramaiora doa.

Gu korta (D) pasatu bezain laster ezkerretik gorantz doan sasi-pistatik pagadi batean sartu ginen. Ikurrak jarraituz beti, aldapa gogorrean hasi ginen eta amaitzean alderdi leun batetik igaro genuen. Bi agerrune pasatu ondoren ezkerretara jo genuen azken aldapa haitzetatik igotzeko Orisol (1.127 m) gailurra zapaldu arte.

tatik sartu ginen, nekosta artean. Laster zuhaitz adarrez egindako artegiaren ondoan pasatu ginen lehen bidebanatzean eskuineko pista hartu arte. Beti beherantz, Aramaiotik Olaetara doan errepidera heldu arte. Errepidetik hiru bat kilometro egin ondoren Olaetara ailega ginen.

JAKINGARRIAK

Iraupena: Urkiolatik Orisolera, bi ordu eta laurden. Orisoletik Olaetara, ordubate. Denetara, hiru ordu eta laurden.

Ibilbideko toki aipagarriak:

Urkiolamendi, Pol-pol iturria, Zabalandi mendilepoa, Leziaga mendi lepoa, Orisol, Santigurutz ermita, Olaeta.

Gailurrak: Urkiolamendi (1.009 m) eta Orisol (1.127 m)

Euskal kulturaren gailurra

Durangoko azokak berrehun mila bisitari eduki du aurten eta nafar produktuak jaun eta jabe

Beste urte batez, eta hogeita hamasei dira honez gero, Durango euskal kulturaren hiriburu nagusi bihurtu da abenduan. Azokak dozenaka liburu eta disko berri ekarri zuen berrehun mila bisitarien begien aurrera. Ez da izan uzta makala, ez horixe! Eta horien guztien artean, gure apal-tasunean, BERTON ere presente egon zen, gainerako herri aldizkari euskaldunekin batera.

Testua: J. Larrazabal



Gurean zalantza-balantza ibiltzea gustuko kirola izaten da. Durangoko azoka jai zenean txikia eta apala zelako. Orain handituta eta masifikatuta dagoelako, edota bertara doazen askoren kultur grina azokako karpapetik irten eta bertan agortzen delako. Kontua izaten da beti gure buruari harrikadaren bat edo beste jotzea. Baina kritika horiek gorabehera,

euskal kulturak urterik urte erai-ki duena hor dago, osasuntsu, eder eta erakargarri.

Aurtengo azokak ez du eten azken urteotako

goranzko joera nabarmena. Gure azoka honetara 70tik gora liburu berri aurkeztu dituzte, hainbat disko ere kaleratu da eta jende multzo ikaragarriak pilatu dira standetan zer dagoen ikusteko gogo biziz. Eduki best-sellerrak ere badauzkagu, kontu egizu!

Balantze ofizialei erreparatuz gero, gehien saldatuko liburuen artean iragarritakoa bete zen. Joseba Sarrionandiaren lehen nobelaren lehen edizio ia osoa -5.500 ale- bertan saldu zen. A ze komeriak komunikabide espainoletan 'Lagun izoztua'rena ez aipatzeko! Eterra bat idazlerik salduena! Halakorik! Horien aukera Harry Potterren liburuen arrakasta nabarmen-tzea izan zen, euskal kulturaren azoka nagusiko erregea umeentzako ipuinak izango balira bezala.

Musikan, oster, Oskorraren 'Vizcainik Bizkaira', Ruper Ordorikaren 'Hurrengo goizean' eta 'Berri



txukun eta handi batean eman du argitara. Azokak jende gehien batu duen egunean, abenduaren 6an alegia, 28 ale saldu zituen. Biharamunean, oster, 7 gehiago. Ez dira asko, lehen esan bezala, baina bakoitzak 100.000 pezetatan saldu dutela kontuan hartuta...

Nafarroatik etorrita ere, 'Nabarra' aldizkari euskaldunak harrera ezin hobe eduki zuen, Sanz ez zela agertu baina 'Nabarra' bai zioen propagandari esker.

Eta Azoka'01eko beste izar nagusia, zalantza izpirik gabe, berez azokan egotarik ez daukan produktu bat: Kamiltxo hartza. Hau ere, aurrekoak bezalaxe, Nafarroatik etorri zen. Euskaraz egiten duen lehenengo panpina gaztaina beroak negubete bezala saldu zen 'Gara' egunkariaren standean. Karutxoa izan arren -4.000 pezetatik gorame askoren altzoan emango ditu Gabonok. Eta, bertan ikusitakoagatik diogu, hain ume ez direnen askoren magalean ere.

BERTON ERE BERTAN

Txarrak'en 'Eskuak-Ukabilak' salduenetakoak izan dira.

Honaino, esan bezala, balantze ofizialetan agertutakoak. Baina gu han ibili ginen egunero-egunero, kuxkuxean, galdezka han eta hemen, standetan zelatan, begiluze, ea zeozer gehiago jakiterik zegoen. Eta Durangoko Azoka'01ean bestelako izarrek ere bazirela deskubritu genituen. Eta gehien bat nafarrak zirela.

IZAR ISILAK, NAFARRAK

Gure datuen arabera, aurtengo azokako izar handiena Nafarroatik heldu da. Mintzoa argialetxeak egin du eta, barra-barra saldu ez bada ere, letra larriaz idaztea mereziko luke. Egia esanda, oso gutxi saldu da. Mintzoak euskarari 'lingua navarrorun' esaten zaion lehen agiria -XII. mendekoa- edizio facsimile

Euskal kulturaren gailurrean herri aldizkari euskaldunak batzen dituen 'Topagunea'k ere bere stand atondu zuen Euskal Herriaren barrena lanean dabiltzan aldizkariak bertan erakusteko. Eta, jakina, hortxe egon zen BERTON, mahatsorriok ere euskarazko komunikabidea badugula ozen aldarrikatzeko.

Euskal Herriko 30en bat herri aldizkari euskaldun dago 'Topagunea'n elkartuta. Horietarik batzuk hila-betekariak dira, beste batzuk hamabostekariak eta beste asko astekariak. Udagoienetik hona batzuek salto egin dute eta aldizkari formatu utzita periodiko itxura hartu dute. Horixe izan da 'Goienkaria'ren -Debagoiena- eta 'Anboto'ren -Durangaldea- kasua. Beste batek ere egin du saltoa, Tolosako Galtzaundi, baina egunkaria izateko. 'Tolosaldea egunero', izenak berak dioenez, egunero kaleratzen da, abenduaren 18tik aurrera 'Euskaldunon Egunkariarekin' egingadako hitzarmenari esker.

INMOBILIARIA
Gelaya

HIGIEZINEN KUDEAKETA - EROSKETA-SALMENTA - ALOGERAK - ...

Iturriaga, 92
Tfona: 94 473 07 78
48004 SANTUTXU - Bilbo

horoskopoa

Aries: martxoaren 21etik apirilaren 20ra.
Zer egin behar dozu horrenbeste ikatz etxean sartuta? Hoba dozu datorren urtean apur bat formaltxuago bazabiltz.

Taurus: apirilaren 21etik maiatzaren 20ra.
Astakilo ospea dekozu eta halan da be zeuk eutsi eta eutsi. Burukadaka botako dozu horma hori behera.

Gemini: maiatzaren 21etik ekainaren 20ra.
Hotza uxatzeko modurik onena maiteñoaren ondo-ondoan egotea ei da. Hasi zaitez, bada, kutun baten bila.

Cancer: ekainaren 21etik uztailaren 20ra.
Neberako txanpain hori behingoz bertatik atara behar dozu. Osterantzean kaduka egingo dau!

Leo: uztailaren 21etik abuztuaren 23ra.
Leoiakaz Madrileko finalera joango zara. Real Madrilen kontrako partidu latza izango da eta zurigorriek azken minutuan irabaziko dabe. Politte, ezta? Hala balitz...

Virgo: abuztuaren 24tik irailaren 23ra.
Neguko hotzaren aitzakiaz ligau eta ligau zabilz. Nok esan eban uda zala lagunagana arrimetako sasoirik onena?

Libra: irailaren 24tik urriaren 23ra.
Pelukeriara joan ostean halako uleakaz urten dozu. Hoba dozu atzera be sartu eta zeure dirua eskatu. Esperimentuak tximinoakaz!

Scorpius: urriaren 24tik azaroaren 23ra.
Goiko pisuko atsoak ez dizu begirik kentzen. Traste galanta zareala pentsetan dau. Emoiozu sorpresatxoia eta, batean sikan, joan zaitez etxera goizeko seiak baino ari-nago.

Sagitarius: azaroaren 24tik abenduaren 23ra.
Zentzunbako halangoa! Nondik bururatu ete jatzu etxeko lehioak edegita ixtea 'hotza kanpora urten dai-ten'?

Capricornius: abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra.
Arrazoe! Olentzeroren antzekoa zara bai, baina bizar zantarrean eta dzanga-dzanga edaten baino ez.

Aquarius: urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra.
Anoetako bertso finaleko zortzi orduak irunsi zenuz- zonetik jendea zeure ondolik igesi doa. Ez dakizu ber- betan 'habanera' ren doinua erabili barik?

Piscis: otsailaren 19tik martxoaren 20ra.
Amorratuta zagoz eguraldi hotzagaz. Negua 'light' nahi daben papardo horietako bat ete zara?

agenda

URTARRILAK 2, 3, 4, 5:
ANTZERKIA: MARKELIÑE:
"LA VUELTA AL MUNDO EN 80
CAJAS". EUSKALDUNA
JAUREGIA.

URTARRILAK 3:
KONTZERTUA: IZ GAUA:
ASGARH. KAFE ANTZOKIA.
22:00ETAN.

URTARRILAK 4:
KONTZERTUA: LA BUENA VIDA.
KAFE ANTZOKIA. 22:00ETAN.

URTARRILAK 5:
ERREGEEN ETORRERA.
SANTUTXU ETA
TXURDINAGA.

URTARRILAK 6:
SEI IZAR HERRI KROSA
SANTUTXUN.

URTARRILAREN 6 ARTE:
'HABLA EN CRISTIANO'
ERAKUSKETA. FORU ARTXIBOA
(MARIA DIAZ DE HARO KALEA).
ANTOLATZAILE: SABINO ARANA
ELKARGOAREN EUSKAL
ABERTZALETASUNAREN
MUSEOA.

URTARRILAK 18:
KONTZERTUA. MACACO. KAFE
ANTZOKIA. 22:00ETAN.

URTARRILAK 24:
KONTZERTUA.
JABIER MUGURUZA. KAFE
ANTZOKIA. 20:30ETAN.

URTARRILAK 31:
ARTE: 'EROTISMO ETA
GASTRONOMIA' ARGAZKI
ERAKUSKETA. BIDEBARRIETA
LIBURUTEGIA.

URTARRILA:
'KANPOKO ETXE BERRIA'
ERAKUSKETA. ZAZPI KALEETA-
KO EUSKAL MUSEOA.

*Zer nolako zortea
gure hizkuntzarena,
mila iturritatik
edaten duena.
Euskararik onena
da norberarena,
eta txarrena, berriz,
egiten ez dena.*

Xabier Euskitze,
2001eko urriaren 18a

euskerarik onena **zeurea**

